

Belea, azeria eta katagorria hezten

Garai batean espezie basati ziren zaldia, katua, otsoa (zakur bihurtua), basurdea (zerri bihurtua), etab. orain dela hamar bat mila urte hezi ziren, eta badirudi harez gero ez dela beste ezer lortu. Egia ordea, besterik da. Lurrean gero eta hiri zein etxe gehiago dagoelako, beste espezie batzuen lurraldeetatik gero eta gertuago gaude. Zakarrontzietara elika-

dura-hondakinak botatzen ditugu, eta horietara zenbait animala espezie hurbiltzen da jatera. Estatu Batuetako ekologistek diotenez, gero eta gehiago ikusten dira beleak, eskino-soak, Kanadako antzarak, katagorriak, basa untxiak, mofetak, mapatxeak, azeriak eta adar-zabalak hiri inguruetan. Fenomeno hori ordea, ez da han bakarrik gertatzen. Britainia Handian eta Frantzia ere behin baino gehiagotan aipatu izan da azeriak etxeetara hondakin-bila inguratzen direla. Mapatxeak, adibidez, oso trebeak dira zaborrontzia jiratu eta barruko janari-hondakinak apro-

betxatzen. Hori berez ez da arazo larria, baina horretara ohitzen badira beren elikatze-askatasuna galdu egingo dute. Antxetak, adibidez, kostaldeko hirietan bizitzera ohitu dira, bertan janaria erraz topatzen dutelako.

Aipatu ditugun animala espezieetako batzuk orojale dira. Belea esaterako, seiehun janari desberdinez elika daitezke. Mapatxeek, tipula izan ezik edozer jaten dute, eta antxetak turistei eskutik patata frigituak hartzen ikusi izan ditugu. Beleek eta mapatxeek gainera, hiri inguruetatik baratzetatik probetxua ateratzen badakite.

Espezie desberdin hauek hiriguneetara hurbiltzeak hiru arazo sortzen ditu. Lehenengoa, espezie desberdinen arteko populazio-orekak

aldatzea da. Untxi eta katagorri gehiegi bada- go, adibidez, sentikorrango diren espezieak baztertu nahiko dituzte eta aldi berean harripakari handiagoak erakarriko dituzte. Untxi gehiegi badago, Europan otsoak inguratuko dira eta Iparramerikan koioteak.


Horrelako hondamena izan zen Indian Assam estatuan banbu-landarea loratu zenean (hamarka urtean behin izaten da). Loreek arratoiak erakarri zituzten, eta hauek ugaldu zirenean tigreak etorri ziren. Tigreek arratoi denak jan zituztenean, gizakiei erasotzen hasi ziren. Arroz-uztak kaskarrak izan zirelako gobernuak elikagaiak bidali behar izan zituen.

Zenbait animala etxetiar bihurtu ahala, beste arazo bat ere sortzen



Garai batean espezie basati ziren zaldia, katua, otsoa (zakur bihurtua), basurdea (zerri bihurtua), etab. orain dela hamar bat mila urte hezi ziren, eta badirudi harez gero ez dela beste ezer lortu. Egia ordea, besterik da. Belea, katagorria eta azeria hezten ari dira..





da. Izan ere, hegazti-espezieak galtzen hasten dira. Belea esaterako, populazio-dentsitate handia duenean beste hegazti-espezie batzuk jaten hasten da. Etxeko katuak adibidez, txoriak harrapatzen ditu, baina zer gertatuko da koio-teak, azeriak eta beste batzuk horretan hasten direnean?

Hirugarren arazoa, giza-kei gaixotasunak kutsatzea da. Animaliek, basatiak izan ala ez, pertsonentzako gaitzak garraia ditzakete eta germenak mutatzeko leku ere badira. Animalia hauek hiri ingurutik urruti edukitzea komeni da, beraz.

Biogas-fabrika

Datorren urtean, Ipar Holandako probintzian 400.000 tona zabor organiko bilduko dira etxe, baserri eta elikadura-industrietatik. Hori guztia jaso eta elektrizitate bihurtuko dute munduko biogas-fabrikarik handienean.

Kapitalaren atzaparrak

Surinam-en hirurogeita hamar metroko zabalerako bidea autopista erraldoiaren baliokidea da. Estatu horretako oihan trinkoan irekita-

ko lehen errepedea da eta ibiltzeko eskubidea atzerriko konpainia baten esku dago; Indonesiako basogintza-konpainia baten esku, hain zuzen ere.

MUSA izeneko konpainiak Jakartan dauka zentrala eta Surinamgo mendebaldeko Apura herriskaren inguruetan 300 bat zuhaitz botatzen ari da egunero.

danez baso-ustiaketan eta zur-industrian mila milioi dolarreko inbertsioa egingo duela agintzen ari da.

Asmatzeko denez, planak eztabaida bizia piztu du. Batzuk, alde agertu dira. Izan ere, Surinamek Hegoameriketako *per capita* errenta handiena zeukan garai batean eta gaur egun egoera nahikoa gogorra

ari den baso-soiltze basatia, eta bestetik, Indonesian ohizkoa den basogintza-sistema hondatzailea. MUSAK, noski, horrelako salaketak baztertu egin ditu eta baso-ustiaketa selektiboa egingo duela iragarri. Alabaina, Surinamgo Ingurugiro-agentziaren adituen arabera, basoen ustiaketa errentagarria izan dadin ustiaketa

PANOS



Kamioi bidez Corantin ibairaino garraiatzen dira eta handik urez itsasoraino. Talde horrek 150.000 hektarea ustiatzeko eskubidea du, baina duen asmoa ez da horretara mugatzen. Legez ez dago Surinamen 150.000 Ha baino gehiago atzerriarrei ematerik, baina parlamentuak gobernua eginiko proposamena onartzen badu, MUSAK oihan tropikal birjineko 62.000 km² ustiatzeko eskubidea izango du; Surinamgo hedaduraren % 40, alegia. MUSA or-

Surinam-en hirurogeita hamar metroko zabalerako bidea autopista erraldoiaren baliokidea da. Estatu horretako oihan trinkoan irekitako lehen errepedea da eta ibiltzeko eskubidea atzerriko konpainia baten esku dago.

da. Beraz, MUSARI esker atzera egin daitekeela pentsatzen da.

Kontrakoez, noski, estatuaaren % 40 ez dagoela atzerriarren esku jartzerik pentsatzen dute. Gainera, ingurugiro-arazoak egongo direla gaineratzen dute. Bi arrazoi aipatzen dituzte: alde batetik, mugakide den Guyanan gertatzen

intentsiboa, basoa osorik botatzea alegia, egin behar da.

Bestetik, ustelkeri salaketak ere izan dira. Agintarien arduragabekeriak, ustelkeriak akaso, beste kasu bat ote dugu? Itxura guztia dauka.

